

Kolegioaren ondotik zer ?



ORIENTAZIOA LANTZEKO

Nere burua ezagutu :

- nere interesak
- nere gustoak
- nere puntu azkarrak
- ikasketa luzeak ? Laburrak ?.

Lanbideak ezagutu :

- lan baldintzak
- lan perspektibak ...

Formakuntzak ezagutu:

- ikasketa mota ezberdinak, irakaskuntza profesionala/ orokorra / teknologikoa ...
- inguruko lizeoak ...


Informatzeko :

- ***onisep.fr*** *Des métiers selon mes goûts - Quiz : Quels métiers pour moi ?*
Guides élèves "Après la troisième".
Kit parents : aider mon enfant pour son projet d'orientation.
- ***les métiers.net*** , ***le canal des métiers.tv*** ...
- ***CIO (Centre d'Information et d'Orientation)***
- **LANBIDEEN FOROAK**
- + **entrepresetan ikastaldia**
- + **ikastaldi laburrak lizeo profesionaletan ("mini stages")**

LAN MUNDUAN SARTZEKO KALIFIKAZIOA (DIPLOMA PROFESIONALA)

IKASKETAK :

- UNIBERTSITATEAN (LIZENTZIA, DUT)
- ESKOLA BEREZITUETAN (KOMERTZIOA, INGENIARITZA, ARTEAK ...)
- LIZEOAN (BTS, CPGE)



BIDE PROFESIONALA

BI MODALITATE :

- **ESKOLAN** (*"Sous statut scolaire"*)

Kurtsoak lizeoan + ikastaldiak / eskolako bakantzak

- **APRENDIZGOAN** (*"Sous statut de salarié"*)

Lan kontratua + CFA -n izena eman

(*Chambre des métiers et de l'artisanat, chambre de commerce et de l'industrie, chambre d'agriculture*).

→ **Gaztearen familiak enplegatzaile bat atxeman behar du**
(*"maître d'apprentissage dans une entreprise d'accueil"*).

CAP baten ondolik :

BP (brevet professionnel) : 2 urtez, gehienetan apendizgoaren bitartez. Lan batzuetan bere kondu aritzeko beharrezkoa (ile apaintzaile, pastizeria...)

BTM (brevet technique des métiers) : 2 urtez. « *Chef d'atelier, chef de fabrication* » (" *Métiers de bouche* ", produkzio eta komertzializazioan : elektrika, Mekanika, egurra, argazkia, laborantxa, "paramédical" ...)
Chambre des métiers et de l'artisanat -k ematen.

MC (mention complémentaire) : urte batez lizeoan edo apendizgoan.
Adibidez : CAP coiffure ondolik : *MC styliste - visagiste*...

BMA (brevet des métiers d'art) : 2 urtez apendizgoan (joaillerie, céramique, ébénisterie ...)

BPA (brevet professionnel agricole) : urte batez CAPren ondolik, apendizgoan.

« ZUBIA » : CAPren ondolik 1. profesionalerat pasatzen ahal da.

BAXO PROFESIONALA

Lan munduan sartzeko kalifikazioa ematen du.

Bi arlo nagusi : **produkzioa** eta **zerbitzuak** (+ **laborantxa** arloko baxoa).

Ordutegian :

- erakaskuntza orokorra
- erakaskuntza profesionala : ofizio bati buruzko ikasketa zehatzak.
- lan munduan murgiltzea 22 astez, enpresetan ikastaldiak eginez.

BAXO PROFESIONALAREN ondotik :

BTS (Brevet de Technicien Supérieur) : 2 urtez, lizeoan edo apendizgoan.
Gazteak kompetentziak ukanen ditu arlo zehatz batean.

Baxo Profesionala "ongi" edo "arras ongi" aipamenarekin lortuz gero, arlo bereko BTS batean segitzeko eskubidea dute.

DUT Orokorragoa da : polibalentzia lantzen da, 2 urtez IUT batean (unibertsitatea).

BAXO OROKORRA ETA TEKNOLOGIKOA

Helburua ikasleak ikasketa luzeetarako prestatzea da, kultura orokorrean eta lan metodoetan oinarri sendoak emanez.

Bigarrena : determinazio gela da.

Oinarrizko gaiak : Frantsesa, Historia-Geografia, Atzerriko hizkuntzak, Zientzia ekonomikoak eta sozialak, Matematikak, Fisika-Kimika, Lurraren eta biziaren Zientziak, Gorputz heziketa, Irakaskuntza Morala eta Hiritarra, Zientzia numerikoak eta teknologia, Orientaziorako laguntza pertsonalizatua.

Hautuzko gaiak (opzioak) :

3.atzerriko hizkuntza, Aintzinateko hizkuntzak eta kulturak, Arteak (arte plastikoak/ikus-entzunezkoak/dantza/musika/antzerkia...), Gorputz eta kirol heziketa, Management eta kudeaketa, Osasuna eta soziala, Bioteknologiak, Laborategiko zientziak, Ingeniaritza zientziak, Sorkuntza teknologikoa, Sorkuntza eta diseinuaren kultura ...

Bigarrenaren ondotik hautua : baxo orokorra eta baxo teknologikoak.

BAXO OROKORRA

OINARRIA DENENTZAT :

Hizkuntzak, Filosofia, Historia Geografia, Gorputz Heziketa, Humanitate zientifikoak eta numerikoak.

GAI BEREZITUAK :

- 3 ezpezialitate Lehenean (3x4 oren)
- Horietarik 2 Terminalean (2x6 oren)
- Arteak
- Ekologia, agronomia eta lurraldea
- Historia Geografia, geopolitika eta zientzia politikoak
- Humanitateak, literatura eta filosofia
- Atzerriko hizkuntzak eta literaturak
- Matematikak
- Numerikoa eta zientzia informatikoak
- Bizia eta lurraren zientziak
- Ingeniaritza zientziak
- Zientzia ekonomikoak eta sozialak
- Fisika-kimika

BAXO TEKNOLOGIKOAK (1)

STI2D

Sciences et technologies de l'industrie et du développement durable.

4 espezialitate : arkitektura eta eraikuntza, energia eta ingurumena, berrikuntza teknologikoa, informatika.

Ondotik : BTS edo DUT, ingeniarietza eskolak, *classes prepa TSI (technologie et sciences industrielles)* ...

STL

Bac sciences et technologies de laboratoire.

Ondotik : BTS edo DUT biologia, kimika, fisika, *industries agroalimentaires*, *classes prepa TSI*, TB (*biologie*), TPC (*physique chimie*), ingeniarietza eskolak ...

STAV

Bac sciences et technologies de l'agronomie et du vivant.

Ondotik : BTS *agricole*, prepa + ingeniarietza ...

BAXO TEKNOLOGIKOAK (2)

STMG

Bac sciences et technologies du management et de la gestion.

Entrepresen kudeaketa administratiboa eta kontablea, bankuak, asurantzak, transportea, logistika ...

Ondotik : BTS edo DUT *gestion, commerce, secrétariat, comptabilité* ...

ST2S

Bac sciences et technologies de la santé et du social.

Ondotik : BTS *sanitaire et social, analyses de biologie médicale*, DUT *carrières sociales, écoles paramédicales (DE infirmier, imagerie médicale ...)*, *écoles du secteur social (DE assistant social, DE éducateur spécialisé ...)*

STD2A

Bac sciences et technologies du design et des arts appliqués.

Ondotik : BTS *arts appliqués, arte eskolak, design* ...

BAXO TEKNOLOGIKOAK (3)

STHR

Sciences et technologies de l' hôtellerie et de la restauration.

Bigarren berezi baten ondotik prestatzen da gehienetan, baina bigarren orokor baten ondotik egin daiteke ere bai.

Ondotik : BTS ostalaritza, turismoa, komertzioa eta zerbitzuak

TMD

Techniques de la musique et de la danse.

Kontserbatorioan musika edo dantza ikasten dutenentzat.

Bigarren berezi bat egin behar da.

Ondotik : Kontserbatorioko ikasketak, unibertsitatea (musikologia, arteak ...)

EGIN BEHARREKO URRATSAK ETA DESMARTXAK

Bigarren hiruhilekoan

-Gogoeta sakondu CIO rat joanez, ONISEP liburuxka irakurriz, ikastetxe ezberdinek proposatutako ikastaro laburretan parte hartuz, ikastetxeen ate idekitzeetara hurbilduz....

-Elgarrizketa fitxa bete behin behineko xedeak adieraziz.

- Ikastetxe pribatu batean izena eman nahi dutenentzat zuzendariarekin harremanetan sartu.

Hirugarren hiruhilekoan

- Elgarrizketa fitxa eta *AFFELNET* post 3ème fitxa bete. Ez ahantz opzioak zehaztea, bi fitxetan.

- Arlo profesional edo teknologiko batzuetan toki mugatuak baitira, bizpahiru xede idaztea komeni da.

- Ikastetxe **publikoentzat** izen emateak ikastetxeak egiten ditu.

- Ikastetxe **privatuetan** izen ematea familien gain da.

3. PREPA PRO

Gehienetan lizeo profesionaletan aurkitzen dira.

Norentzat : - eskolako gai orokorretan motibazio eskasa duten ikasleak
- eskolarki zailtasunetan diren ikasleak

Helburuak : - dinamika berri batean sartzea
- bide profesionalaren prestatzea

Lanbideen deskubritzeari ematen zaio indarra, motibazio berri bat pizteko.

Arlo ezberdinak ikusten dituzte, bai gelan bai kanpoan : entrepresen bisitak, ikastaroak .

Kolegioko brebeta pasatzen dute, "*série professionnelle*".

ETXEPARE LIZEOAREN ESKAINTZA

- BAXO OROKORRA

- BAXO TEKNOLOGIKOA :

- MKZT (Management eta Kudeaketaren Zientziak eta Teknikak)
(*STMG : Sciences et Techniques du Management et de la Gestion*)

- BAXO PROFESIONALA :

- MERKATARITZA
- HHBZ : Hurbileko eta Herri Bizirako Zerbitzuak
(*SPVL : Services de Proximité et Vie Locale*)

- 3. PREPA PRO